

LASARTE-ORIAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOEN GARBIKETAKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

XEDEA

Dokumentu hau garatzearen xedea da lehiaketa bidez kontratatzea Lasarte-Oriako Udalaren kirol-instalazioen garbiketako zerbitzua.

JARDUN-EREMUA.

Kontratu honen bidez adjudikatuko diren garbiketako lanak kiroldegi munizipalean, Michelin enpresaren instalazioak zirenekoan kokatutako kirol-eremu munizipalean eta Villa Mirentxu etxearen ondoan dagoen trinketean egingo dira.

Egin beharreko lanen helmenak kirol-instalazio guztiak eta haien osatzen dituzten elementuak hartzen ditu: sarbideak, korridoreak, terrazak, aldagelak, aldageletako armairuak, komunak, bulegoak, atezaindegia, botika-gela, zentro medikoa, areto polibalentea, biltegiak, tailerra, makina-zonak, kirol-instalazioak (estaliak eta estali gabeak), ekipamendua eta harmailak.

LANEN MAIZTASUNA ETA IRISPIDEA.

Instalazioetako zona bakoitzean egin beharreko lanak, bai eta bakoitzaren maiztasuna ere, lanen maiztasunari eta irispideari buruzko eranskinean datoz jasoak.

Igerilekuko zonan, enpresa kontratatuaren erantzukizuna izango da Garbiketako eta Desinfekzioko Plana behar bezala ezartzea, Lasarte-Oriako Igerileku Munizipalaren Autokontrolako Programaren barruan.

Jendearentzat irekita dagoen orduetan, instalazioek denbora guztian egon beharko dute erabiltzaileek baliatzeko moduan.

Garbiketaren barruan sartuko dira, halaber, beiratzadurak eta argizuloak, paperontzia, hautsontziak, arekak, hondartegiak, kutxetak eta hustubideak, orbel-bilketa, higieneko material berrornitzea, behar den lekuetan aire-gozagarriak erabiltzea, sorturiko zaborra gaika biltzea eta leku aporosean uztea (hondakin-motaren arabera bereizirik: papera, plastikoa, beira...), instalazioan ahazturiko arropa jasotzea eta jasotako toallak garbitzea.

PERTSONA-EKIPOA ETA ORDUTEGIA.

Enpresak denbora guztian edukiko du adjudikaturiko lanak egiteko behar den pertsona-ekipoa.

Bajen, emergentzien, oporren... hutsuneak enpresa kontratatuak beteko ditu, instalazioaren garbitasun-maila afektatu gabe.

Ordutegiak kontuan hartu beharko du jendeari irekitako orduetatik kanpo egoitzak sakonetik garbitzea eta instalazio bakoitzean garbiketako pertsonala presente egotea, irekitako orduen erdietan gutxienez. Presentzia hori indartu egingo da instalazioen geldialdi teknikoetan.

Adjudikatarioa obligatua dago Udaleko Kirol-Zerbitzuak eskaturiko zerbitzu bereziak egitera. Lizitatzailak 48 orduko epe minimoan atendituko ditu ohiz kanpoko zerbitzuak. Zerbitzu horiek aparte fakturatuko dira.

GARBIKETAKO EKIPAMENDUA ETA MATERIALAK.

Garbiketako eta desinfekzioko ekipamendua, lanabesak, materialak eta produktuak, aire-gozagarriak, uniformeak (nahitaez jantzi beharrekoak), komuneko eta eskuko paperaren berrornidurak eta eskuetako xaboiak enpresa kontratatuaren kontura izango dira (adjudikatarioak justifikatu egin beharko du erabiltako produktu eta ekipamenduen egokitasuna). Jabeak aportatuko du higieneko ekipamendua (paper-barrak, eskuoihal-euskarriak, xaboi-dosifikagailuak, paperontziak), bai halaber uraren eta argindarraren hornidura.

Enpresa kontratatuak kontratu honen xede diren eginkizunak aurrera eramateko ekipamendu eta makina efizienteenak eta egokienak edukiko eta erabiliko ditu instalazioetan etengabeki. Matxura gertatuz gero, makineria hori berehala ordeztuko da funtzionamenduko egoera guztiz onean dagoen beste berdinekin.

AZALPEN-TXOSTENA.

Lizitatuak azalpen-txosten bat aurkeztu beharko du, hau adieraziko duena:

- Gipuzkoan azken hiru urte honetan kirol-instalazioak garbitzen egindako lanen erreferentziak.

- Zentro bakoitzean eman beharreko zerbitzuaren deskripzioa. Lana antolatzeko proposamena, zeinetan zonaka zehaztuko baititu egin beharreko lanak, bai halaber egingo diren garbiketaren ezaugarriak, erabiliko diren medio materialak (makinak, ibilgailuak, produktuak...), garbiketako lanak egingo dituen pertsona-ekipoa, laneko ordutegia eta emandako zerbitzuaren kalitatea kontrolatze aldera hartuko dituen neurriak.

- Lizitatuak desglosaturik eman beharko du eskaintako prezioaren informazioa: pertsonaleko gastuak, materialak, makinak, enpresaren estruktura, etekin industrialak. Enpresako pertsonalari gaur egun aplikatzen zaion laneko hitzarmenaren kopia erantsiko du.